

Oreretako "OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA FUNDAZIOAREN" ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izena.

1.- Orereta Ikastola, Koop. Elkartek eta Haurtzaro Ikastola, Koop. Elkartek osatutako "Oiertzo Batxilergo Ikastola Fundazioa" irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere ondarea interes orokorreko xedeak betetzearekin dauka lotuta betiere.

2- Fundatzaileen borondateak, estatutu hauek, eta, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak, garatu beharreko erregelamendu-xedapenek eta indarrean dauden gainerako arauak arautzen dute Fundazioa.

3.- Fundazioa denbora mugagaberako eratu da.

2. artikulua.- Erregimen juridikoa, gaitasuna eta nortasun juridikoa.

1.- Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea du, eratze-eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatu zen egunaz geroztik, eta erabateko gaitasun juridikoa eta jardutekoa izango du, fundatzaileek fundazio-egintzan, Estatutu hauetan, eta, edozein kasutan, aplikatzekoak diren lege-xedapenetan —Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean bereziki— ezarritako lege-mugak soilik izango dituela.

2- Horren ondorioz, eta Babeslaritzari egin beharreko komunikazioak alde batera utzi gabe, Fundazioak erabateko gaitasuna izango du bere xedeak betetzeko ahaleginetan jarduteko, Kode Zibilaren 38. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Fundazioak honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak garatu, bere xedeak garatzeko edo xede horretarako baliabideak erakartzeko.
- b) Edozein titulurengatik mota guztietako ondasun eta eskubideak erosi eta besterendu, eta mota guztietako ekitaldi, negozio eta kontratuak egin.
- c) Mota guztietako ekintzak egin, bere estatutu eta legeak betez.

3. artikulua.- Fundazioaren xedeak.


1- Fundazioaren interes orokorreko xedeak honako hauek dira:

Hamasei urtetik aurrerako ikasleentzako irakaskuntza-jardunbidearen garapen integrala, hezkuntzaren eta jakintzaren adar guztietan.

Fundazioak ikasleei emandako prestakuntza euskaraz emango da, bere helburu nagusietako bat euskal kultura ikasle eta guraso guztiei eta gizarte osoari transmititzea eta transmisio hori bultzatu eta bermatzea delako.

Ikasleen prestakuntza integrala, irakasgaiei zein ikasleen nortasunaren garapenari dagokienez, etorkizunean pertsona aske eta arduratsuak izan daitezen.

2- Helburu horiek guztiak lortzeko, Fundazioak honako jarduera hauek egiteko aukera izango du:



Irakaskuntza-jardunekoak izango dira jarduera nabarmenenak. Elkarri lotutako eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola-zerbitzu osagarriak ere eskainiko ditu, eta baita irakaskuntza-jarduna errazten duten jarduera guztiak ere. Ikastola bat izanik, bere izaera eta balioekin bat egiten duelako, herriari eskainitako jarduerak ere antola ditzake

4. artikulua.- Helbidea eta lurralde-eremua.

1- Fundazioaren helbidea Orereta/Errenterian egongo da, Zamalbide auzoko 16. zenbakian.

2- Fundazioaren Patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabakiaren bitartez, haren helbidea aldatzeko aukera izango da, eta hori Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da. Gainera, Patronatuari eskumena ematen zaio kasuan kasu, fundazioaren xedeak betetzetik eratorritako premien arabera ezarriko diren establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen egoitzak erabakitzeko.

3- Fundazioak nagusiki Oarsoaldeko udalerrien eremuan garatuko ditu bere jarduerak.

5. artikulua.- Iraupena eta Ekitaldi Ekonomikoa.

Fundazioaren iraupena mugagabea da, baldin eta eraketaren unean agindutako helburuak betetzen baditu.

Ekitaldi ekonomikoa ikasturtearekin bat etorriko da, hau da, irailaren 1etik abuztuaren 31ra bitarte izango da.

6. artikulua.- Onuradunak.

Fundazioaren prestazio eta zerbitzuen onuradunak 16 urtetik gorako ikasleak izango dira.

7. artikulua.- Jarduneko eta funtzionamenduko printzipioak.

Fundazioak honako printzipio hauen arabera jardungo du:

- a) Publizitatea eta gardentasuna, bere xede eta jardueren inguruan informazio nahikoa emanez jendeak oro har eta onuradunak izan daitezkeenak bereziki haien berri izan dezaten.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak eta onuradunen jarduera eta prestazioak erabakitzean.
- c) Jarduneko jarraibideak sustatzea, jokabide-kodeak eta funtzionatzeko jardunbide egokiak sortuz.
- d) Patronatua osatzen duten pertsonen zerbitzu-espirtua sustatzea, eta Fundazioaren interesei lehentasuna ematea norberaren edo partikularren interesen aurretik.
- e) Lankidetzeta leiala eta iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako erabiltzeko betebeharra benetan betetzen dela zaindu eta defendatzea, estatutu hauetan eta indarreko araudian aurreikusitakoa betez.
- g) Genero-berdintasuna.

II. TITULUA.- PATRONATUA

8. artikulua.- Fundazioaren Patronatua.

Patronatua Fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa da. Fundazioaren xedeak betetzea eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak behar bezala administratzea dagokio, baita haien errendimendua eta erabilgarritasuna mantentzea ere.

9. artikulua.- Patronatuaren osaera.

1- 4 pertsonak osatuko dute Patronatua: Orereta Ikastola, Koop. Elkartek izendatutako 2 pertsonak eta Haurtzaro Ikastola, Koop. Elkartek izendatutako beste 2k.

Patronatua osatzen duten pertsonak organo hori ezarritako gutxienerako pertsona kopuruarekin mantendu behar dute, eta gutxienez hiru izango dira.

2- Pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke Patronatuko kide. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko erabateko gaitasuna eduki beharko dute, eta kargu publikoetan jarduteko gaituta egongo dira betiere. Patronatuko kide diren pertsona juridikoek izendatu beharko dute/dituzte organo horretan ordezkatzeko dituen/dituzten pertsona fisiko(k).

3- Patronatua honako kargu hauez osatuko da:

- Lehendakaria.
- Lehendakariordea.
- Idazkaria.
- Kidea.

10- artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonak izendatu eta kargugabetzea.

1.- Fundazio-eskrituraren pertsona fundatzaileek izendatuko dute lehen Patronatua.


2- Zabaltzearen edo ordeztearen ondorioz Patronatuaren baitan pertsona berriak izendatu behar direnean, gobernu-organo horrek izendatuko ditu erabaki bidez, baldin eta gutxienez gobernu-organo horretako kideen erdiak baino gehiagok horren aldeko botoa ematen badute.

3- Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari eman beharko dio patronoen izendapen eta kargugabetzearen berri, lege ezarritako epean.

4- Izendatutako pertsonak kargua espresuki onartu beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduetako bat erabiliz. Uko egitea betetzeko, berriz, artikulua horren 2. atalean aurreikusitako moduetako bat erabili beharko da.

5- Eskumeneko organo judizialak erabaki ahal izango du Patronatuko kideak kargurik gabe uztea, haien aurka erantzukizun-ekintza gauzatzen bada karguan Legean aurreikusitako arduraz ez jarduteagatik.

6- Gobernu-organoko kideen izendapena eta kargugabetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.



11- artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonen kargua uzteko edo kargutik kentzeko arrazoiak.

Fundazioko Patronoek honako kasu hauetan utziko diote patronatuko kide izateari:

- a) Hiltzen direnean edo hil direla deklaritzen dutenean, edota pertsona juridikoa azkentzen denean.
- b) Legeak ezarritakoaren arabera, ezgaitasun-, desgaitasun- edo bateraezintasun-egoeraren batean daudenean.
- c) Patronatuko kide izateko izendapenari dagokion kargua uzteagatik edo kargutik kentzeagatik.
- d) Kargua ordezkari leial batek berez behar duen arduraz ez betetzeagatik, baldin eta ebazpen judizialez adierazten bada ez duela hala bete.
- e) Erantzukizun-ekintza biltzen duen ebazpen judizialagatik.
- f) Agintaldia amaitu delako, baldin eta denboraldi jakin baterako izendapena bada.
- g) Karguari uko egiteagatik.

12. artikulua.- Patronatuko kideak ordezteak.

1- Patronoak ordezteko prozedura honako hau izango da:

Fundazioaren Patronatuko kide den pertsona juridiko bakoitzak askatasun osoz izendatuko ditu hura ordezkatzeko duten bi pertsona fisikoak, bakoitzaren administrazio-organoren baitan hartutako erabaki espresuaren bitartez.

2- Ordeztea horrela egiteko modurik ez dagoenean, estatutuak aldatuko dira Fundazioei buruzko Legean aurreikusitakoari jarraikiz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari gaitasuna emango zaio Fundazioa ordezkatzuz Fundazioaren gobernu-organoa aldi baterako osatuko du(t)en pertsona edo pertsonak izendatzeko, estatutu-aldaketa hori gauzatu arte.

3- Patronoak 3 baino gutxiago badira, non eta patrono bakarra ez dagoen, Patronatuko indarreko gainerako kargudunek edo, bidezko bada, fundatzaileek, legeak eskatutako gutxienekora iristeko behar diren kide guztiak izendatu ahalko dituzte, eta Babeslaritzari emango diote izendapen horien berri 30 eguneko epean.

4- Patronoen ordezteak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

13. artikulua.- Patronatuaren iraupena.

1- Patronoaren karguak hiru urteko iraupena izango du (mugarik gabe).

2.- Heriotzak, ezintasunak, desgaitasunak, heriotza-deklarazioak, kanporatzeak, edo bateraezintasunak, agintaldia amaitu izanak, uko egiteak, enkaitzeak, gobernu-organoko kide bat ordezteak edo kargutik kentzea eragiten duten beste zirkunstantzia batzuek eragindako postu hutsak Patronatuaren bitartez beteko dira, eta postu hutsaren egoera ezin izango da luzatu 6 hilabete baino gehiago.

14. artikulua.- Patrono-karguaren doakotasuna.

1- Patronoek doakotasunez jardungo dute beren karguan. Nolanahi ere, beren eginkizunetatik eratorritako gastuen dirua jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatzen badituzte.

2- Patronatuak ordainsari bat ezarri ahal izango du Fundazioan beren eginkizunei dagozkienez bestelako zerbitzuak ematen dituzten patronoentzat, non eta fundatzaileen debeku espresurik ez dagoen. Babeslaritzak erabaki hori baimendu beharko du hiru hileko epean.

15. artikulua.- Fundazioaren lehendakaria.

1.- Patronatuak lehendakari bat hautatuko du kideen artetik, eta haren ardura izango da, bere ekimenez edo kideen gutxienez heren baten eskaerari jarraikiz, Patronatua deitzea, eztabaidak bideratzea eta hartzen diren erabakiak egikaritzea.

2- Orereta Ikastolak izendatutako bi kideetako bat Lehendakaria izango da.

3.- Patronatuko lehendakaria gobernu-organo horren goreneko ordezkaria izango da, eta, organo horretako kideen berezko eskumenez gain, Fundazioa ordezkatzeko eskumena ere izango du, Patronatuaren eta Fundazioaren bestelako organoen erabakietatik eratorritako kontratu eta egintza guztietan, baita administrazioko, gobernuko eta arlo judizial zein estrajudizialeko gai, espediente eta auzi guztietan ere, eta xede horretarako prokuradore edo abokatuen aldeko auzietarako ahalorde orokorrak emateko eskumena ere izango du.

16. artikulua.- Lehendakariordea.

1.- Patronatuak lehendakariordea izendatu ahal izango du kideen artetik, kideen gehiengoaren botoaz.

2- Lehendakaria agertzen ez bada edo gaixo badago, lehendakariordeak hura ordezkatzeko du, eta hori egiaztatzeko nahikoa izango da egoeraren berri ematea. Lehendakaria eta lehendakariordea agertzen ez badira, Patronatuko kide zaharrenak ordeztuko ditu.

17. artikulua.- Idazkaria.

Patronatuak Idazkari bat izendatu ahalko du, kideen artetik edo ez. Fundazioaren administrazio-lanak zuzenduko ditu, dokumentazioa zainduko du eta bilkuren akta egingo du. Ondoren akta horiek Akta Liburuan transkribatuko dira, behin onartu ondoren eta lehendakari gisa diharduen pertsonaren oniritziarekin. Idazkariak ez du boto eskubidea izango patronatuaren kide ez bada.

18. artikulua.- Fundazioaren zerbitzuan diharduten beste langile batzuk.

Kudeaketa arrunta gerentzia baten esku utz daiteke, eta haren izendapena eta kargugabetzea Babeslaritzari jakinarazi beharko zaizkio. Gerenteari emandako botere orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Erregistroan inskribatuko dira.

19. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

Patronatuaren eginkizunak honako hauek dira, Fundazioaren gobernu eta administrazioarekin zerikusia dutenak, eta, gutxienez, honako hauei dagokienez:

- a) Fundazioaren orientazioa adieraztea, xedeak hobeto betetzeko.
- b) Ekonomia- eta finantza-baliabide guztiak administratzea, horien jatorria edozein izanik ere.



- c) Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoera Balantzea, Emaizten Kontua eta Memoria onartzea, baita aldi horretako jardun-planaren likidazioa ere.
- d) Hurrengo ekitaldiko jardun-plana onartzea, baita haren azalpenezko Memoria ere.
- e) Barne-erregimeneko arau egokiak onartzea.
- f) Batzorde Delegatuak sortzea, batzorde horietako kideak izendatzea, horien eskumenak erabakitzea eta ahalorde orokor edo bereziak ematea, hurrengo artikuluetan jasotakoari jarraikiz.
- g) Zuzendari, exekutibo eta aholkularien izendapenak, eta behar diren gainerako teknikari, administrari, langile eta subalternoen kontratazioa.
- h) Fundazioaren xedeak hobeto betetzeko beharrezkoak diren mota guztietako kontratu eta egintzak egitea eta onartzea, zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administratiboak edo beste edozein motatakoak izanik ere.
- i) Eskumeneko erakundeei dagozkien proposamenak egitea, maila handiagoko erabakia behar duten gaietarako.
- j) Funtsek ekarri eta lankidetzat hartzen diren enpresa, entitate, erakunde edo partikularrek lankidetzat hartzen diren teknikari eta langile kualifikatuak prestatzeko programetan parte har dezatela sustatzea.
- k) Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo ez onartzea, baldin eta Fundazioarentzat egokitzat jotzen badute, Babeslaritzari jakinarazita.
- l) Fundazioaren estatutuak aldatzea, baldin eta fundatzailearen borondatea betetzeko beharrezkoa bada.

20. artikulua.- Eskumenak eta ahalordeak eskuordetzea.

1- Patronatuak bere kide baten esku utz ditzake bere eskumenak. Honako hauei dagozkien erabakiak hartzea ezin izango da inoiz eskuordetu:

- a) Urteko kontuak onartzea.
- b) Jardun-plana onartzea.
- c) Estatutuak aldatzea.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldatzea, azkentzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, salbu eta egintza horiek Patronatuaren xedeei zuzenean lotuta badaude.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetan partzipazioak saltzeko edo parte hartzeko egintzak, baldin eta Fundazioaren aktiboaren % 20tik gorako zenbatekoa badute.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20tik gorako ondasun edo eskubideen gaineko edozein xedapen-egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo murriztea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien eta batzuen bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
- k) Patronatua osatzen duten pertsonen autokontratazioa, non eta jardun hori errepikatzen ez den eta babeslaritzak alde aurretik antzeko kasuetarako baimendu ez duen.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak hartu eta formalizatzea.

2- Halaber, ahalmen orokorrak eta bereziak emateko edo bertan behera uzteko aukera izango du Patronatuak.

21. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren Patronatua osatzen duten pertsonen honako betebeharrak dituzte:

- a) Fundazioaren xedeak zorrotzasunez betetzea eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren Estatutuaren ezarritakoari jarraikiz.

- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzea eta horien produktibitateari guztiz eustea, kudeaketa on baten irizpide ekonomiko-finantzarioen arabera.
- c) Karguan ordezkari leial bati dagokion arduraz jardutea.

22.- artikulua.- Patronatua osatzen duten pertsonen erantzukizuna.

1- Patronoek Fundazioaren aurrean solidarioki erantzungo diete legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz edo kargua behar bezalako arduraz ez betetzeagatik eragiten dituzten kalte eta galerei.

2.- Erantzukizunetik aske geratuko dira erabakiaren kontra bozkatu dutenak; erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez, eta gainera frogatzen dutenak ez zutela erabakiaren berririk, bai eta, erabakiaren berri izan arren, frogatzen dutenak komeni zen oro egin zutela kaltea saihesteko edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela.

23. artikulua.- Patronatuaren barne-funtzionamendua.

1- Patronatuak gutxienez 2 bilera egingo ditu urtero. Urte bakoitzeko lehen sei hilabeteren barruan nahitaez bilduko da urteko kontuak onartzeko, baita hurrengo ekitaldiko jardun-plana onartzeko ere.

2- Patronatuaren deialdiak idazki bidez egin beharko dira, lehendakari gisa diharduen pertsonak erabakitako Gai Zerrenda barne hartuz gobernu-organoko kideen iradokizunak kontuan hartuta, gutxienez 2 egun bileraren eguna baino lehen; presazko kasuetan, aldiz, epea egun batera murrizteko aukera izango da.

3- Orereta Ikastola, Koop. Elkarrekin izendatutako patrono bakoitzaren botoak 3ko balioa izango du; Haurtzaro Ikastola, Koop. Elkarrekin izendatutako patrono bakoitzaren botoak, berriz, 1eko balioa. Hori guztia 8 boto edukitzeko gutzira, boto-eskubidea Fundazioaren esparruan bazkidegintza erakunde bakoitzak bere gain hartutako erantzukizun ekonomikoaren ehunekoarekin lotuz.

24. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea.

1- Patronatua lehen deialdian eratuko da botoen erdia baino gehiago biltzen direnean; botoak pertsonalak edo ordezkatuak izan daitezke.


2. Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma biltzen ez bada, Patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bilkura horretarako nahikoa izango da gutxienez lehendakaria eta lehendakariorde titularrak bertaratea.

3- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa bazter utzi gabe, Patronatua legez deitu eta eratuko da baldin eta, kide guztiak bilduta egonik, bilkura egiteko erabakia aho batez onartzen badute.

4- Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, honako kasu hauetako batean izan ezik:

Aldatzeko, bat-egiteko, bereizteko eta azkentzeko erabakietarako, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

5- Lehendakari gisa diharduen pertsonaren botoak ebatziko ditu gerta litezkeen berdinketak.



6- Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzaren akta egingo du. Akta horretan, bileraren tokia eta eguna zehazteaz gain, bertaratuen izenak, eztabaidatutako gaiak eta hartutako erabakien edukia jasoko dira.

7- Patronatuak bideokonferentzia bidez edo beste komunikazio-bide batzuen bitartez biltzeko aukera izango du, baldin eta bertaratzen direnen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, eta eztabaidetan esku hartzeko eta botoa emateko aukera baimentzen badira. Kasu horretan, bilera lehendakaria dagoen tokian egiten dela ulertzen da.

8- Salbuespenez, Patronatuak bilerarik egin gabe hartu ahalko ditu erabakiak, baldin eta informatzeko eta botoa emateko eskubideak bermatzen badira, botoa jaso izana egiaztatzen bada, eta horren egiazkotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidearen lekuan hartzen dela ulertuko da, ongi emandako botoen azkena jasotzen den egunean.

III. TITULUA.- ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

25. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Hasierako zuzkiduran bilduta egonik ekonomikoki balioetsi daitezkeen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiek osatuko dute Fundazioaren ondarea, baita eraketaz geroztik eskuratzen dituen guztiek ere, zuzkidurari lotuta egon edo ez.

26. artikulua.- Ondare-zuzkidura.

1- Fundazioaren hasierako ondare-zuzkidura eratze-eskritura publikoan xede horretarako jasotakoa da, eta fundatzaileek emandako ondasun eta eskubideez osatua dago.

2- Ondorengo ondare-zuzkidurak Patronatuak onartu behar ditu, eta urteko kontuetan adierazi behar dira.

3- Fundazioak fundazioaren zuzkidura handitzeko baliatu ahal izango ditu diru-sarreraren soberakinak.

4.- Galerak edo defizita badaude, eta konpentsazio-xedeetarako, Orereta Ikastola, Koop. Elkarrekin galeren % 75aren gaineko erantzukizuna hartuko du, eta Haurtzaro Ikastola, Koop. Elkarrekin, berriz, gainerako % 25aren gainekoa.

27. artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

1.- Fundazioaren ondarea zaindu eta babesteko, honako arau hauek beteko dira:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira eta Fundazioaren inbentarioan jasoko dira; hala badagokio, dagozkien Erregistroetan jasoko dira;
- b) Ondasun higiezinak eta/edo benetako eskubideak Jabetzaren Erregistroan jasoko dira Fundazioaren izenean. Erregistroetan jasotzeko moduko gainerako ondasunak, berriz, dagozkien erregistroetan jasoko dira.
- c) Baloreak eta eskudirua, jabetza-titulua, gordailu-ordezkapirak eta fundazioaren titulartasuneko jabaria, jabetza, erabilera, luperketa edo beste edozein eskubide egiaztatzeko beste edozein dokumentu Patronatuak erabakitzen duen erakundearen gordailatuko dira, Fundazioaren izenean.

d) Gainerako ondasun higigarriak Patronatuak erabakitakoari jarraikiz zainduko dira.

2.- Ondasun edo eskubide horiek guztiak inbentarioen liburuan zehaztuko dira, Patronatuko idazkariaren esku egongo dena, eta liburu horretan, idazkariak ikuskatuta, ondasun eta eskubide horiek identifikatzeko eta deskribatzeko behar diren zirkunstantzia guztiak jasoko dira.

28. artikulua.- Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak.

1- Urteko kontuak onartzen direnez geroztik 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak urteko kontuak bidaliko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari, gorde ditzan. Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitateari buruzko araudian aurreikusitako betekizunak bete behar dituzte kontu horiek.

2- Fundazioaren urteko kontuetan bilduko dira, gutxienez, balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jardun-planaren likidazioa. Gainera, patronatuak auditoria-txostena aurkeztuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako kasuetan.

3- Kontu horietan adieraziko dira Fundazioaren ondare-, ekonomia- eta finantza-egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, fundazioaren xede eta legezko aginduen betearazpena ezagutarazteko eta justifikatzeko nahikoa.

4- Ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, Fundazioak jarduneko plan bat egingo du, diru-sarrerak eta gastuak orekaz jasota. Plan hori onartzen den urteko azken hiruhilekoan aurkeztuko zaio Babeslaritzari, azalpen-memoria batekin batera.

29. artikulua.- Fundazioaren baliabideen aplikazioa.

1- Emaizta-kontuaren diru-sarreraren (kontzeptu guztiengatik lortutakoak) gutxienez % 70 fundazioaren xedeak egiteko baliatu beharko ditu Fundazioak, diru-sarrerak lortzeko ordaindutako gastuak kenduta, fundazioaren xedeak betetzekoak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta diru-sarrera horiek lortu diren ekitaldiaren hasieran hasiko da, eta ekitaldi hori itxi ondoren hiru urte geroago amaituko da.


2- Administrazio-gastuak izango dira, batetik, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, eta, bestetik, Patronatuko kideei beren karguan aritzeagatik sortutakoak, baldin eta horiek itzultzeko eskubidea badute.

30. artikulua.- Jarduera ekonomiko, enpresarial edo komertzialen garapena.

1- Fundazioak garatu ahal izango ditu, zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez, fundazioaren xedeekin zerikusia duten jarduera ekonomiko, enpresarial edo komertzialak, edo haien osagarri edo gehigarri diren jarduerak, lehiaren defentsa erregulatzen duten arauak betez.

2- Gainera, beste edozein jarduera ekonomikotan esku hartzeko aukera izango du beste erakunde batzuetan parte hartuz, baldin eta pertsonalki gizarte-zorren ardura hartzen ez badu.

31. artikulua.- Xedapen- edo karga-egintzak.



1- Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari eman beharko dio kostu bidezko edo doako xedapeneko zein kargako egintzen berri, Fundazioaren ondarean bilduta egonik Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aipatzen diren ondasun edo eskubideei dagokienez.

2- Patronatuak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dio Babeslaritzari, eta hartan adieraziko da karga- edo xedapen-erabakia ongi hartu dela, hori egiteko arrazoi eta premia zehaztuta. Adieraziko da, halaber, eragiketak ez diola Fundazioari kalterik egiten, eta ez duela haren bideragarritasun ekonomikoa kolokan jartzen.

3- Xedapen- edo karga-egintzen xede diren ondasun edo eskubideen merkatu-balioa Fundazioaren aktiboaren % 60tik gorakoa bada, Patronatuak aurkeztu beharko du, erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, profesional independente batek egindako azterlan ekonomiko bat, adierazpenean jasotakoa egiaztatuko duena eta Fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa eta eragiketa irizpide ekonomiko-finantzario eta merkatuko irizpideen ondorio dela bermatuko duena.

4- Aipatutako xedapen- edo karga-egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, eta, bidezko bada, dagozkion erregistroan inskribatuko dira. Babeslaritzari urtean behin aurkeztu behar zaion memorian jaso beharko dira gainerako xedapen- edo karga-egintzak.

IV. TITULUA.- ALDATZEA, BAT-EGITEA, BEREIZKETA, AZKENTZEA ETA LIKIDAZIOA

32. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

1- Fundazioaren Patronatuak honako estatutu hauek aldatzeko erabakia har dezake, fundazioaren xedea hobeto betetzeko komenigarria dela uste badu eta fundatzaileen debeku espresurik ez badago.

2- Estatutuak aldatzeko erabakia ongi arrazoituta hartu beharko da, gutxienez aldeko botoen 2/3ekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da.

33. artikulua.- Azkentzea.

Fundazioa azkenduko da:

- a) Eratzean ezarri zen epea amaitzen denean.
- b) Eratzean ezarri zen xedea bere osotasunean bete denean.
- c) Fundazioaren xedea betetzea ezinezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean estatutuak aldatzeari, bat-egiteari eta bereizketari dagokienez ezarritakoa alde batera utzi gabe.
- d) Bat-egiteko edo bereizketako prozesu baten ondorio denean.
- e) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi tartean dagoenean.

34. artikulua.- Azkentzeko prozedura.

1- Aurreko artikuluko a) atalaren kasuan, Fundazioa eskubide osoz azkenduko da.

2- Aurreko artikuluko b) eta c) ataletan aurreikusitako kasuetan, Fundazioa azkentzeko Patronatuaren erabakia beharko da, eta Babeslaritzak berretsi beharko du. Patronatuak erabakirik hartzen ez badu, edo Babeslaritzak erabaki hori berresten ez

badu, ebazpen judizial arrazoitua beharko da Fundazioa azkentzeko, Babeslaritzak edo Patronatuak eskatu ahalko duena, kasuan kasu.

3- Aurreko artikuluko e) atalaren kasuan, ebazpen judizial arrazoitua eskatuko da.

4- Azkentzeko akordioa arrazoiak emanez hartu beharko da, gutxienez Patronatua osatzen duten pertsonen bi herenen aldeko botoarekin.

5- Azkentzeko erabakia, edo, hala badagokio, ebazpen judizial arrazoitua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

35. artikulua.- Sobera den ondarearen likidazioa eta erabilera.

1- Fundazioa azkentzen bada, non eta bat-egiteko prozeduraren ondorio ez den, edo azkentzeko arrazoiak betetzen badira, likidazio-prozesua irekiko da, Patronatuaren eskutik edo gobernu-organo horrek Babeslaritzaren kontrolpean izendatutako likidazio-batzorde baten eskutik, non eta ebazpen judizial arrazoitua bat ezartzen ez duen. Fundazioak nortasun juridikoari eutsiko dio prozesu hori amaitu arte, eta aldi horretan Fundazioa "likidazioan" identifikatuko da.

2- Likidazioaren ondoriozko ondasun eta eskubide guzti-guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorarentzat izango dira.

3- Aurreko zehaztapenik ezean, azkendutakoaren xede berdinak dituzten beste fundazio edo erakundeen esku jarriko ditu Babeslaritzak ondasun eta eskubide horiek, udalerrri berean edo lurralde historiko berean helbideratuta daudenei lehentasuna emanez.

V. TITULUA - BABESLARITZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

36. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroa.


Fundazio honen eraketa, eta Fundazioari loturik legez egingo diren egintza edo negozio guztien eraketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

37. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritza.

Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren tutoretzaren, aholkularitzaren eta kontrolaren eraginpean dago, indarreko legeetan aurreikusitakoari jarraikiz.

38. artikulua.- Zehapen-erregimena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako zehapen-erregimenaren eraginpean dago Fundazioa.



ESTATUTOS DE LA "FUNDACIÓN OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA", DE Orereta/Errenteria

TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Denominación.

1.- La "Fundación Oiartzo Batxilergo Ikastola", de Orereta/Errenteria, constituida por Orereta Ikastola, Koop. Elk. y Haurtzaro Ikastola, Koop. Elk., es una organización constituida sin ánimo de lucro que tiene afectado de modo duradero su patrimonio a la realización de fines de interés general.

2.- La Fundación se rige por la voluntad de la/s persona/s fundadora/s, por los presentes estatutos, y en todo caso por la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, las disposiciones reglamentarias de desarrollo y demás normativa vigente.

3.- La Fundación se constituye por tiempo indefinido.

Artículo 2.- Régimen jurídico, capacidad y personalidad jurídica.

1- La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente desde la inscripción de la escritura de constitución en el Registro de Fundaciones, y dispondrá de plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de las personas fundadoras en el acto fundacional, en los presentes estatutos y, en todo caso, en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

2- En consecuencia, y sin perjuicio de las pertinentes comunicaciones al Protectorado, la Fundación tendrá plena capacidad de obrar en el cumplimiento de sus fines, conforme a lo previsto en el artículo 38 del Código Civil. La Fundación podrá:

- a) Desarrollar actividades económicas, de todo tipo, para realizar sus fines o allegar recursos con ese objeto.
- b) Adquirir y enajenar toda clase de bienes y derechos, por cualquier título, y celebrar todo tipo de actos, negocios y contratos.
- c) Ejercitar toda clase de acciones, conforme a sus estatutos y a las leyes.

Artículo 3.- Fines fundacionales.

1- Los fines de interés general que persigue la Fundación son:

Desarrollo integral de la práctica docente dirigida al alumnado de más de dieciséis años, en todas las ramas educativas y del saber.

La formación del alumnado por parte de la Fundación se llevará a cabo en euskara, ya que uno de sus objetivos consiste en garantizar y apoyar la transmisión de la cultura vasca, tanto a la totalidad del alumnado y madres y padres, como a toda la sociedad.

La formación integral del alumnado tanto en lo referente a las materias de estudio como al desarrollo de su personalidad, con el fin de que lleguen a ser personas libres y responsables.

2- Para la consecución de todos estos fines, la Fundación podrá llevar a cabo las siguientes actividades:

Las actividades más destacadas serán las relacionadas con la práctica docente. Además, la ikastola ofrecerá actividades extraescolares interrelacionadas y servicios escolares complementarios, y todas aquellas actividades que faciliten la práctica docente. Al tratarse de una ikastola, de acuerdo a su visión, misión y valores, podrá organizar y llevar a cabo actividades abiertas a toda la ciudadanía.

Artículo 4.- Domicilio y ámbito territorial.

1- La Fundación tendrá su domicilio en Orereta/Erreterria, en Zamalbide Auzoa 16.

